



IRAKASLEEN HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK AUKERA ANITZEKO GALDEKIZUNA

HE2

- Proba honek 70 galdera ditu. Gainditzeko 45 puntu lortu behar dira.
- Lau aukeren artean erantzun **egokiena** aukeratu eta **erantzun-orrian** markatu.
- Erantzun okerrengatik ez zaizu punturik kenduko.
- Erantzuteko denbora: **ordubete**.

1 "Zezenak plazatik ihes egin zuenean, hura zen korrika egitea!" Zein da segida egokia?

- a) Hori da hori!
- b) Halakorik!
- c) Tira!
- d) Horrelako antzik!

2 "Abuztuan ospatzen dituzte jai nagusiak; txukun asko ospatu ere". Zer adierazi nahi du?

- a) Ez da zikinkeriarik izaten.
- b) Erdipurdiko jaiak dira.
- c) Dotore janzten dira.
- d) Ez dira nolana hiko festak.

3 Zein dago TXARTO?

- a) Ederra gizona!
- b) Hori bai gizon ederra!
- c) Zer gizon ederra!
- d) Nolako ederra da gizona!

4 zerbait banintzan, ezkondu eta ezer ez.

- a) Ezkonberritan
- b) Ezkontideetan
- c) Ezkonlagunetan
- d) Ezkongaietan

5 "Hitzaldiaren ondoren, entzuleek larrutu egin dute hizlaria". Zer adierazi nahi du?

- a) Babesa eskaini diotela.
- b) Biluztu egin dutela.
- c) Goraipatu egin dutela.
- d) Lotsagarri utzi dutela.

6 Zein EZ DA sail berekoa?

- a) Hagitz
- b) Biziki
- c) Birao
- d) Arras

7 Ez dakite ekarriko duten auto berria. Agian

.....

- a) noiz / aste bat
- b) noizko / biharko
- c) noizkorako / biharkorako
- d) noizerako / biharrerako

8 Kontuz ibili, aurrekoa gerta ez

- a) dakizuen.
- b) zaizuen.
- c) zitzaizuen.
- d) diezazuen.

**9 Zein da DESBERDINA?**

- a) Telebista ikusiz puntua egiten dut.
- b) Telebista ikusten ari naizela puntua egiten dut.
- c) Telebista ikusi bitartean puntua egiten dut.
- d) Telebista ikusita puntua egiten dut.

10 Zein dago GAIZKI?

- a) Denbora gutxi da hori jakin dudala.
- b) Duela gutxi jakin dut hori.
- c) Duela gutxi hori jakin dudala.
- d) Orain dela gutxi jakin dut hori.

11 "Agirrek ukatu egin du epaileen artean jokabide desberdinak daudela". Zer adierazi nahi du?

- a) Epaileen jokabidea gaitzetsi du.
- b) Ukatu egin die diferente jokatzeari.
- c) Esan du epaileez diotena ez dela egia.
- d) Esan du epaileek ez dutela zilegi desberdin jokatzeari.

12 Zeinetan dago ortografia AKATSA?

- a) leohia / hauspoa
- b) hunkitu / hautatu
- c) samurra / sotila
- d) zartakoa / zotina

13 "Gurekin kotxea ekarri beharko duzue". Zein dago TXARTO?

- a) etortzeko
- b) etortzera
- c) etortzekotan
- d) etorritz

14 Nor da besteren zorraren erantzukizuna hartzen duen pertsona?

- a) jotzailea
- b) aitzindaria
- c) suspertzailea
- d) bermatzailea

15 "Ez duzue lan makala hartu!" Zer adierazi nahi du?

- a) Debekua
- b) Mirespena
- c) Errieta
- d) Haserrea

16 Zeinek du esanahi DESBERDINA?

- a) Adarra jo
- b) Harpa jo
- c) Ziria sartu
- d) Erronka jo

17 Apustu egiteko zein EZ DA egokia?

- a) Baietz irabazi!
- b) Egingo nuke baietz irabazi!
- c) Lepoa egingo nuke ez duela irabazten.
- d) Jokatzen dizut ez duen irabazten.



18 -"Esan ezazu behingoz! " Aukeratu jarraipen egokia.

- a) Beti hizketan!
- b) Zeren zain zaude?
- c) Bazen garaia!
- d) Isilduko al zara?

19 Hitzak eta pertsonak ibiltariak dira: datoz, iritsi nahi dute.

- a) nonbaitetik / nonbaitera
- b) nondik-baitetik / nondik-baitera
- c) inondik ez / inora ez
- d) edonondik ez / edonora ez

20 Guk ez daukagu hor

- a) zer esaterik.
- b) zer esanik.
- c) ezer esanik.
- d) ezer esan.

21 Konposatu kimikoa osatua dago.

- a) hiru elementurengatik
- b) hiru elementuengatik
- c) hiru elementuetan
- d) hiru elementuz

22 "Hori euren esku daukatenez, guk ez daukagu zertan sartu". Zer adierazi nahi du?

- a) Hori ez dagokigula guri.
- b) Lanik gabe gaudela.
- c) Ezin diegula irabazi.
- d) Haien mendeko garela.

23 "Ez da arretarik jartzen lan-baldintzetan". Zein esaldik du esanahi DESBERDINA?

- a) Ez zaie kasurik egiten lan-baldintzei.
- b) Ez dira lan-baldintzak sustatzen.
- c) Ez zaie lan-baldintzei erreparatzen.
- d) Ez dira begiak lan-baldintzetan jartzen.

24 Zein dago GAIZKI idatzita?

- a) Hatsa
- b) Hatza
- c) Antza
- d) Artza

25 Hor dabil hara eta hona,

- a) nora joan ez dakiena.
- b) nora joan ez dakiela.
- c) edonora joan jakin gabe.
- d) nora joan ez dakien.

26 "Naturaren aldeko ituna eskatu diote ekologistek Jaurlearitzari". Zein EZ DA egokia?

- a) egin izana
- b) egiteko
- c) egin dezala
- d) egitea



27 Hamar hilabete falta oporrak hartzeko eta erabakia dugu nora joango garen.

- a) dagoeneko
- b) oraindik
- c) honezkero
- d) honenbeste

28 "Zertan ari zara?" Aukeratu erantzunik egokiena.

- a) Ezertan.
- b) Ezertan ere.
- c) Ezer.
- d) Ezertan ere ez.

29 Zein EZ DA buru-atala?

- a) Garuna
- b) Garondoa
- c) Kokotsa
- d) Kokotekoa

30 "Hurrengo partidarako begiz jo naute". Zer esan nahi du?

- a) Begizkoa egin didatela.
- b) Aukeratu egin nautela.
- c) Begitan hartu nautela.
- d) Begiak nigan zorrotz dituztela.

31 "..... Ez zaituztet begi-bistan ikusi nahi!" Hutsunea bete.

- a) Hala bedi!
- b) Eskerrak!
- c) Bejondeizuela!
- d) Utikan!

32 Bolada txarra pasa duela adierazteko.

- a) Horrek lehengo lepotik burua.
- b) Bereak eta bi egin ditu horrek.
- c) Horrenak egin du.
- d) Gorriak ikusi ditu horrek.

33 Zein dira baliokide?

- a) egunsentia / goiztiria
- b) egutera / eguerdia
- c) ilunpea / ilunabarra
- d) arratsa / eguratsa

34 Haragiaren osagai koipetsua:

- a) Giharra
- b) Gantza
- c) Geruza
- d) Gorotza

35 "Begiratu ea " Zein dago TXARTO?

- a) ikaslerik etorri den.
- b) ikasle baten bat etorri den.
- c) ikasleren bat etorri den.
- d) ikasleak etorri diren.



36 "Liburuak ere idatzi ditu: bi behintzat, "

Zein dago GAIZKI?

- a) nik dakizkidala.
- b) nik dakizkidanak.
- c) nik dakidala.
- d) nik dakidalarik.

37 Zein da zuzena?

- a) Badago bat gitarra jotzen dakiela.
- b) Gero eta gehiago edan, okerrago gidatzen dut.
- c) Hemen ez dago inor dakien hori.
- d) Ez didazu eskutik helduko, ala?

38 Bizitzan ez da ibili ohore eta handinahi bila; omenaldia ere halakoxea izan da:

- a) trinkoa eta ospetsua.
- b) xumea eta goxoa.
- c) xehea eta uzkurra.
- d) zehatza eta joria.

39 Jatetxe garestienetara joan eta, , 1.000 dolarreko xanpaina eskatzeko ohitura zeukan.

- a) besteak beste
- b) batez beste
- c) batetik eta bestetik
- d) bestela

40 Konfiantza handia daukat gizonezkoa behingoz

- a) aldatuko denarekin.
- b) aldatuko dela.
- c) aldatuko den.
- d) aldatuko denetz.

41 Zein da zuzena?

- a) Kale horren zehar dator jendea.
- b) Hori gu bila dator.
- c) Bidasoaz bestaldean dago herria.
- d) Zer begira zaude zu?

42 Mirenek eta Itziarrek egin dute lo.

- a) ohe bakoitzean
- b) ohe bakoitzan
- c) ohe banatan
- d) ohe banan

43 "Urratu" aditzak non adierazten du egoera negatiboa?

- a) Zapatak osasunarekin urratu!
- b) Bide berriak urratu.
- c) Zuzenbidea urratu.
- d) Eguna urratu.

44 "Erdiz erdi ireki zituen leihoak". Aukeratu baliokidea.

- a) Erdizka ireki zituen.
- b) Erdialdekoak ireki zituen.
- c) Erdiak inguru ireki zituen.
- d) Erabat ireki zituen.

45 "Galdu egin dut, baina pozik nago ahaleginarekin!"

Zer erantzungo zenioke?

- a) Gaitz erdi!
- b) Zorionak!
- c) Eskerrik asko!
- d) Alajaina!

46 "Bertsolariak iritsi zirenean lepo zegoen Beltzenia frontoia". Nola zegoen?

- a) atonduta
- b) hutsik
- c) itxita
- d) gainezka

**47 Arrazoiak aztertzen hasita, mordoa aipa :
geure demografiaren mugak gogora**

- a) litezke / genezake.
- b) liteke / genitzake.
- c) liteke / liteke.
- d) litezke / lirateke.

48 Astakeriarik, ..., ez ezazu egin.

- a) izan ere
- b) baten bat
- c) behinik behin
- d) ere bai

49 "Eurodiputatuen iritzia ez da loteslea, baina aintzakotzat hartzea espero dute". Zer adierazi nahi du?

- a) Ez da iritzi bateratua; bai kontuan hartzekoa.
- b) Iritzi askatasuna aintzat hartu behar da.
- c) Ez da nahitaez bete beharrekoa; bai kontuan hartzekoa.
- d) Eurodiputatuen iritzi-batasuna errespetagarria da.

50 "Horrek erakusten du bidegabekeriak bere horretan jarraitzen duela". Zer esan nahi du?

- a) Desagertzeaz dagoela.
- b) Areagotu egingo dela.
- c) Ez dela aldaketarik izan.
- d) Ez dela errepikatuko.

51 Zein dira baliokideak?

- a) beratu / bigundu
- b) ureztatu / urtu
- c) goritu / garatu
- d) goretsi / gaitzetsi

52 "Zuek beti bazterrak nahasten!" Aukeratu jarraipen egokia.

- a) Zeinen utziak zareten!
- b) Ez duzue ezer asmatzen!
- c) Bazterrik bazter zabiltzate!
- d) Utziko al gaituzue bakean?

**53 Zer EZ DA egiten?**

- a) Garia eho.
- b) Haragia iragazi.
- c) Arrautza irabiatu.
- d) Odola xurgatu.

54 Astronautak itzuliko dira

- a) apirilean / Lurrera.
- b) apirilean / Lurrara.
- c) apirilan / Lurrera.
- d) apirilan / Lurrara.

55 Kasualitatez atzeratuko balitz, gure lanak ez luke balio izango.

- a) hamar egun baino gehiago
- b) hamar egun baino gehiagotan
- c) hamar baino gehiago egunez
- d) hamar egun baino beranduago

56 "Badaukazue zer jan, baina ez daukazue zertan". Zer adierazi nahi du?

- a) Ez daukatela jaterik.
- b) Jakiren bat edo falta zaiela.
- c) Ez daukatela jan beharrik.
- d) Ezin dutela edonola jan.

57 Zein idatzi behar da bereiztuta?

- a) Halanola
- b) Halabeharrez
- c) Indarberritu
- d) Gainbehera

58 Zein dago ONDO idatzita?

- a) Zabela
- b) Zaina
- c) Zakela
- d) Serraldo

59 Zein dago gramatikalki TXARTO?

- a) Auto banatan joan dira Peru eta Ines.
- b) Hamar egunez izan naiz Argentinan.
- c) Irailean hasi genuen ikasturtea.
- d) Horrek ez ditu behar ez apunterik ez libururik.

60 New Orleans-eko hondamenean kudeaketa txarra egitea diote gobernuari.

- a) eragotzi
- b) eragin
- c) iragarri
- d) egotzi

61 Gobernuburuak esandakoak

- a) hautsa astindu du.
- b) hautsak harrotu ditu.
- c) hautsa eragingo du.
- d) dena hauts egingo du.



62 "Gure aitona-amonak gaurko umeak baino ezjakinagoak ote ziren?" Zein erantzun dago TXARTO?

- a) Ezta inola ere!
- b) Bai, zera!
- c) Ez, ez horixe!
- d) Jakina ez zirenik!

63 Gure usteak ez direla bete adierazteko.

- a) Usteak erdia ustel.
- b) Usteak ez digu bete.
- c) Usteak bai usteak!
- d) Ustelak halakoak!

64 Greba egin izana ordaindu zuten langileek.

- a) aitaren batean
- b) lepotik
- c) larrutik
- d) eskutik

65 "Garai hartan irakasleak zilegi zuen ikasleak jotzea". Zein da baliokidea?

- a) Jo zitzakeen.
- b) Debekatua zeukan jotzea.
- c) Jotzeko eragozpenak zituen.
- d) Jotzeko agindua zeukan.

66 Zein da ur gezakoa?

- a) Amuarraina
- b) Lanperna
- c) Legatza
- d) Otarraina

67 Gai horri buruzko biltzarra egin dute Donostian.

- a) oraindik
- b) oraingo
- c) oraindik orain
- d) aurki

68 Ikusmenean eragiten gaitzak sendatzea miraria da.

- a) dizkiguten
- b) diguten
- c) zaizkigun
- d) digun

69 "Arratsaldean ere etorriko zen; itxaropen hori nuen behintzat". Aukeratu baliokidea.

- a) Arratsaldean ere etorriko zelaren itxaropena nuen.
- b) Arratsaldean ere etorriko zen itxaropena nuen.
- c) Arratsaldean ere etorriko zeneko itxaropena nuen.
- d) Arratsaldean ere etorriko zuen itxaropena nuen.

70 Aldatu egin nintzela adierazteko.

- a) Nintzena izateari utzi nion.
- b) Nintzena izaten utzi nion.
- c) Nintzena izateko utzi nuen.
- d) Nintzena izatera utzi nuen.

ATARIKO PROBA: ERANTZUNAK

HE2

1	B	11	C	21	D	31	D	41	C	51	A	61	B
2	D	12	A	22	A	32	D	42	C	52	D	62	D
3	D	13	D	23	B	33	A	43	C	53	B	63	A
4	D	14	D	24	D	34	B	44	D	54	A	64	C
5	D	15	B	25	B	35	B	45	A	55	A	65	A
6	C	16	D	26	A	36	A	46	D	56	C	66	A
7	B	17	D	27	A	37	D	47	B	57	A	67	C
8	A	18	B	28	D	38	B	48	C	58	B	68	B
9	D	19	A	29	D	39	A	49	C	59	D	69	B
10	C	20	B	30	B	40	B	50	C	60	D	70	A